URRETXU-ZUMARRAGAKO IKASTETXEETARAKO MENDEKOTASUNAK PREBENITZEKO PROGRAMAK ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALARI BURUZKO TAILERRAK EGITEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE UN SERVICIO PARA LA REALIZACIÓN DE PROGRAMAS DE PREVENCIÓN DE ADICCIONES Y REALIZACIÓN DE TALLERES SOBRE EDUCACIÓN AFECTIVO-SEXUAL DIRIGIDOS AL ALUMNADO DE CENTROS EDUCATIVOS DE ZUMARRAGA-URRETXU**
Lehenengoa. KONTRATUAREN XEDEA	**Primera. OBJETO DEL CONTRATO**
Lehiaketa honen helburua da adikzioetan eta hezkuntza afektibo-sexualean espezializatutako erakundeak kontratatzea, prozedura ireki bidez, Urretxu-Zumarragako ikastetxeetan esku-hartze hezitzaile bat ezartzeko, ikasleei, irakasleei eta ikasleen tutoreei tresnak eta baliabideak eskaintzeko.	El objeto de la presente licitación es la contratación, por procedimiento abierto, de entidades especializadas en adicciones y educación afectivo-sexual que implementará una intervención educativa en centros escolares de Urretxu-Zumarraga destinada a proporcionar herramientas y recursos al alumnado, al profesorado y a los tutores/as del alumnado.
Helburu orokorra	**Objetivo general**
Hezkidetza-proiektu bat diseinatzea eta gauzatzea hezkuntza-esparru formalean eta ez-formalean. Proiektu horrek pertsonen garapen integrala bultzatuko du, genero-baldintzatzailerik gabe, eta honako hauek sustatuko ditu: berdintasuna, indarkeria matxisten prebentzioa, hezkuntza afektibo-sexual osasungarria eta paritarioa, eta zaintzan erantzukidea duen eguneroko bizitzarako prestakuntza.	Diseño y ejecución en el ámbito educativo formal y no formal de un proyecto coeducativo, que impulse el desarrollo integral de las personas sin condicionantes de género, y que promueva la igualdad, la prevención de las violencias machistas, una educación afectivo-sexual saludable y paritaria, y la preparación para la vida cotidiana corresponsable en el cuidado.
Ikuspegi intersekzionala integratuko da, eta proiektuak izaera prozesuala izango du.	Se integrará la perspectiva interseccional, y el proyecto tendrá un carácter procesual.
-**Euskara**: Programa eta tailer guztiak euskara hutsean egingo dira.	-**Euskara**: Todos los programas y talleres se desarrollarán exclusivamente en euskara.

-**Inklusioa**: Haurtzaroan dagoen pluraltasuna kontuan hartuko da eta aniztasunari erreparatuko zaio.	-**Inclusión**: Se tendrá en cuenta la pluralidad existente en la infancia y se atenderá la diversidad.
- **Prestakuntza**: Ikasleen eta irakasleen ezagutzak hobetzen ditu substantziei, adikzioei eta hezkuntza afektibo-sexualari dagokienez.	- **Formación:** Mejora los conocimientos del alumnado y del profesorado en todo lo referido a las sustancias, a las adicciones y a la educación afectivo-sexual.
- **Sentsibilizazioa**: Irakasleak eta ikasleak arriskuen aurrean.	- **Sensibilización:** Al profesorado y al alumnado frente a los riesgos.
-**Esku-hartzea**: Ikasleen gaitasun pertsonalak handitzea, bereziki emozioen kudeaketari, pentsamendu kritikoari eta erabaki asertiboak hartzeari dagokienez, eta jokabide osasungarriak hartzea sustatzea.	-**Intervención:** Aumentar las capacidades personales del alumnado, especialmente en lo que se refiere a la gestión de las emociones, el pensamiento crítico y la toma de decisiones asertivas y fomentar la adopción de conductas saludables.
Bigarrena. HARTZAILEAK Urretxuko eta Zumarragako ikastetxeetako Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasle eta irakasleei zuzenduta dago programa.	**Segunda. DESTINATARIOS** El programa se dirige al alumnado y profesorado y a los tutores/as del alumnado de Primaria, Secundaria y Bachillerato de los centros educativos de Urretxu y Zumarraga.
Hirugarrena. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK Programak eta tailerrak 2025/26 eta 2026/27 ikasturteetan zehar garatuko dira, Urretxuko eta Zumarragako ikastetxeetan bi ikasturte gehiagora arte luzagarria.	**Tercera. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO** Los programas y talleres se desarrollarán durante el curso escolar 2025/26 y 2026/27 prorrograble hasta dos cursos escolares más en los centros escolares de Urretxu y Zumarraga.
Esleipenaren ondorioetarako, zerbitzua bi erlotan banakatuko da: -1. lotea -2. Lotea	A efectos de adjudicación, el servicio se desglosa en dos lotes: - Lote 1 - Lote 2
1. LOTEA: URRETXUKO ETA ZUMARRAGAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEI ZUZENDUTAKO ZINEMAREN BIDEZ, DROGA-MENDEKOTASUNAK	**LOTE 1: SERVICIO PARA LA REALIZACIÓN DE PROGRAMAS DE PREVENCIÓN DE DROGODEPENDENCIAS Y**

PREBENITZEKO ETA BIZITZARAKO TREBETASUNAK SUSTATZEKO PROGRAMAK EGITEKO ZERBITZUA.	**FOMENTO DE HABILIDADES PARA LA VIDA, A TRAVÉS DEL CINE DIRIGIDO AL ALUMNADO DE CENTROS EDUCATIVOS DE URRETXU-ZUMARRAGA.**
Hazkunde fisiko azkarraz gain, nabarmenak dira nerabezaroan ematen diren aldaketa psikologikoak ere. Ez hori bakarrik, garapen kognitibo azkarraren garaia ere bada nerabezaroa.	Además del rápido crecimiento físico, los cambios psicológicos que se producen en la adolescencia son evidentes. Asimismo, la adolescencia es una etapa de rápido desarrollo físico, psicológico y cognitivo.
Norbanako gehienentzat nerabezaroan hasten da identitate-bilaketa. Ez da zeregin erraza izaten eta nerabearen inguruneak sekulako garrantzia izan ohi du nortasunaren garapenean. Izan ere, nerabe baten gizarte-garapenean funtsezkoak dira lagunekin, bikotekideekin, senideekin edota bestelako gizarte-esparruko kideekin eraikitzen dituzten harremanak.	La búsqueda de la identidad comienza en la adolescencia para la mayoría de las personas. No suele ser tarea fácil y en la adolescencia el entorno adquiere una enorme importancia en el desarrollo de la personalidad. Y es que en el desarrollo social de la o el adolescente las relaciones que se establecen con sus amistades, parejas, familias u otras personas del ámbito social son fundamentales.
Testuinguru horretan, aldi kritikoa da nerabezaroa. Jendarteak inposatutako rol estereotipatuek dakartzaten ondoezak, norbere ahulguneak estali nahiei edota ezinegonei erantzuteko gaitasun eskasak jokabide aldaketak eta gatazkak sor ditzake.	En este contexto, la adolescencia es un periodo crítico. El malestar que suponen los roles estereotipados impuestos por la sociedad, el deseo de cubrir las propias debilidades o la escasa capacidad de respuesta a las inquietudes, pueden generar cambios de conducta y conflictos.
Aldaketa-garai horretan, ohikoa izan liteke alkohola, tabakoa, kalamua, antsiolitikoak eta bestelako sustantziak kontsumitzen hastea. Dela estresari edota antsietateari erantzuteko, dela gizarteko moldeetatik ihes egiteko, edota, besterik gabe, aske sentitzeko, nagusi sentitu nahi izateagatik edota talde baten parte izateko. Esate baterako, antsiolitikoen kontsumoak gorakada izan du nerabeetan eta genero-arrakala begibistakoa da, emakumezkoen kontsumoa handiagoa baita.	En esta época de cambios, puede ser habitual empezar a consumir alcohol, tabaco, cannabis, ansiolíticos y otras sustancias. Bien para responder al estrés, a la ansiedad, bien para escapar de las formas sociales, o simplemente para sentirse en libertad, querer sentirse mayor o formar parte de un grupo.
Arrazoiak arrazoi, drogen gehiegizko kontsumoak berarekin dakartza portaera ez osasuntsuak. Sustantzia bakoitzak bere ondorio espezifikoak baditu ere, guzti-guztiek eragiten dute fisikoki, psikologikoki eta	Sea por la razón que sea, el consumo excesivo de drogas implica comportamientos no saludables. Y aunque cada sustancia tiene sus consecuencias específicas, todas

sozialki: mendekotasuna sortzeaz gain, ohikoak bihurtzen dira suminkortasuna edota umore-aldaketak, baita inguru hurbilarekin gatazkak eta eztabaidak ere. Horrez gain, gero eta normalizatuagoa dago eguneroko arazoei aurre egiteko drogak kontsumitzea eta horrek desahaldundu egiten gaitu, alegia, gaitasuna galtzen dugu beste estrategia batzuen bidez erantzuteko arazo horiei; hala nola, baliabide eta sare komunitarioetara jotzea, edo familiara, adibidez.	ellas influyen física, psicológica y socialmente: además de generar adicción, son frecuentes la irritabilidad o los cambios de humor, así como los conflictos y discusiones con el entorno próximo. Además, el consumo de drogas para hacer frente a los problemas cotidianos esta cada vez más normalizado y esto nos des empodera, es decir, perdemos la capacidad de responder a estos problemas a través de otras estrategias como recurrir a recursos y redes comunitarias o la familia.
Kontsumo-joera eragile sozialei hain lotuta dagoenez, konponbideek ere ezinbestean izan behar dute alderdi soziala. Ezinbestekoa da nerabeei babes-faktoreak eskaintzea: informazioa eskura jarri, autoestimua sustatu, aisialdiko aukerak eman eta erabaki autonomoak eta portaera osasungarriak hartzeko trebetasun sozial egokietan heztea. Alegia, kontsumoaren aurrean, taldeko dinamikez eta inertziaz harago, ezinbestekoa da nerabeek hautu pertsonal propioak egiteko kontzientzia hartzea: hots, nork bere burua errespetatzetik eta maitatzetik besteekiko harreman osasuntsuak abiatzea.	Dado que la tendencia del consumo está ligada a los agentes sociales, la solución también debe tener un componente social. Es imprescindible ofrecer factores de protección a las y los adolescentes: facilitar la información, fomentar la autoestima, ofrecer alternativas de ocio y educar en habilidades sociales adecuadas para tomar decisiones autónomas y comportamientos saludables. Es decir, ante el consumo, más allá de las dinámicas e inercias grupales, es imprescindible que los y las adolescentes tomen conciencia de hacer sus propias elecciones personales, es decir, que se inicien relaciones sanas con los demás desde el respeto y el amor a uno mismo.
PROGRAMAREN XEDEA Urretxuko eta Zumarragako ikastetxeetako DBHko ikasleei zuzendutako formakuntza eta aholkularitza eskainiko da, drogekiko menpekotasuna prebenitzeko eta kontsumo arduratsua sustatzeko sentsibilizazio lana egingo da, eta harreman osasuntsuak eta seguruak eraikitzeko baliabideak eskainiko dira.	**OBJETO DEL PROGRAMA** Se ofrecerá formación y asesoramiento dirigido al alumnado de la ESO de los centros escolares de Urretxu y Zumarraga, se llevará a cabo una labor de sensibilización sobre la prevención de la dependencia a las drogas y el fomento del consumo responsable, y se ofrecerán recursos para la construcción de relaciones sanas y seguras.

ZUMARRAGAKO UDALA
ZUMARRAGA
(GIPUZKOA)

Urretxu

LANEN IRISMENA	ALCANCE DE LOS TRABAJOS
Helburu espezifikoak Enpresa esleipendunak prebentzio-programa bat garatu beharko du, batez ere ikus-entzunezko baliabideak erabiliz. Gainera, zeregin hauek egin beharko ditu: - Ikasleentzako eta irakasleentzako unitate didaktikoak egitea eta inprimatuta eta/edo digitalki argitaratzea, euskaraz eta gaztelaniaz. - Laburmetraien estekak ikastetxeetara bidaltzea internet bidez. - Film luzeak proiektatu aurreko ikus-entzunezko aurkezpenaren gidoia egitea eta grabatzea. - Programatutako film luzeak proiektatzea eta saioak gainbegiratzea, eta asistentzia kontrolatzea. - Zinema-saio bakoitzari dagozkion material didaktikoak diseinatzea, argitaratzea eta banatzea. - Aldian behin, Urretxuko Udaleko eta Zumarragako Udaleko talde teknikoarekin koordinatzea. - Urretxuko-Zumarraga ikastetxeekin koordinatzea - Jarduera guztietan genero-ikuspegia kontuan hartzea - Jardueraren jarraipena eta ebaluazioa egitea eta aurkeztea - Urteko memoria egitea formatu elebidunean.	**Objetivos específicos** La empresa adjudicataria, deberá desarrollar un programa de prevención utilizando fundamentalmente recursos audiovisuales. Además, deberá realizar las siguientes tareas: - Elaboración y edición impresa y/o digital de unidades didácticas en euskera y castellano para alumnado y profesorado. - Envío por internet a los centros escolares de los enlaces de los cortometrajes. - Elaboración del guion y grabación de la presentación audiovisual previa a la proyección de los largometrajes. - Proyección de los largometrajes programados y supervisión de las sesiones, llevando un control de la asistencia. - Diseño, edición y reparto de los materiales didácticos correspondientes a cada sesión cinematrográfica. - Coordinación periódica con el equipo técnico del ayuntamiento de Urretxu y del ayuntamiento de Zumarraga - Coordinación con los centros educativos de Urretxu-Zumarraga - Incorporación de la perspectiva de género en todas sus actuaciones - Seguimiento y evaluación de la actividad - Realización de una memoria anual en formato bilingüe.

Baliabideak eta eman beharreko zerbitzua	**Recursos y servicio a prestar**
Programa, nagusiki, udalerrietako ikastetxeetako instalazioetan garatuko da.	El programa se desarrollará principalmente en las instalaciones de los centros escolares del municipio.
Beharrezkoa denean Urretxuko eta Zumarragako Udalak beste gune batzuk eta beste udal zerbitzu batzuekiko koordinazioa erraztuko ditu.	Y cuando sea necesario el Ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga facilitará otros espacios y la coordinación con otros servicios municipales.
Film luzeen proiekzioa Zelai Arizti zineman egingo da, ikasturte bakoitzean gehienez ere 12 proiekzio eginez, eta enpresa esleipendunak HTKrekin harremanetan jarri beharko du eta jardueraren ondorioz sor daitezkeen gastuak bere gain hartuko ditu.	La proyección de largometrajes se realizará en el cine Zelai Arizti realizando un máximo de 12 proyecciones por curso escolar y la empresa adjudicataria deberá ponerse en contacto con HTK y se hará cargo de los gastos que se pudieran derivar de la actividad.
Udal-programen arteko sinergiak sustatuko dira, dagozkien udal-arloekin eta langile teknikoekin koordinatuta.	Se impulsarán sinergias entre programas municipales, en coordinación con sus respectivas áreas municipales y personal técnico.
Sorta hau garatzeko, gutxienez 102 ordu egingo dira, hartzaile taldeetan xehetuko direnak.	Para el desarrollo de este lote se realizarán un mínimo de 102 horas desglosadas en los diferentes grupos destinatarios.
Programak, ikasturte bakoitzean gutxienez 12 jardueraren bidez, ikasgelan tailerrak eta esku-hartzeak diseinatu, garatu eta landu beharko ditu. - Film labur, tutorial eta luzemetraien hamabi tailer. - Tailer bakoitzeko ikus-entzunezko aurkezpenak, ikusteko. - Lau edizioz osatutako online programa oso bat, gelan modu independentean landu eta garatu beharrekoa. Lau edizio horiek urtean zehar egongo dira irakasleen eskura. - Unitate didaktikoak gaztelaniaz eta euskaraz.	El programa deberá abordar, a través de un mínimo de 12 actividades por curso escolar, el diseño, desarrollo y elaboración de talleres e intervenciones en el aula. - Doce talleres de cortometrajes, tutoriales y largometrajes. - Presentaciones audiovisuales por cada taller para su visionado. - Un programa online completo formado por cuatro ediciones a trabajar independientemente y desarrollar en el aula. Estas cuatro ediciones estarán a lo largo del año a disposición del profesorado. - Unidades didácticas en castellano y en euskera.

Talde teknikoa. Eginkizunak	Equipo técnico. Funciones
Talde teknikoaren osaera	**Composición del equipo técnico**
Programa garatzeko ardura duten langileek honako hauek izan beharko dituzte: unibertsitateko titulu ofiziala (ikus-entzunezko komunikazioa, psikologia, filologia edo baliokidea), C1 euskara-mailaren ziurtagiria, antzeko ekintzetan froga daitekeen esperientzia eta sexu-delituen ziurtagiri negatiboa.	El personal encargado del desarrollo del programa deberá poseer: el título oficial universitario (comunicación audiovisual, psicología, filología o equivalente), certificado de un nivel de euskera C1, experiencia demostrable en acciones similares y el certificado negativo de delitos sexuales.
Esleipendunak koordinatzaile/zuzendari nagusi bat izendatu behar du, Arteak eta Giza Zientziak eta/edo Zientzia Sozialak eta/edo Juridikoak jakintza-arloan aritzeko. Euskaraz ondo hitz egiten eta idazten jakin behar du (C1), eta kontratuaren xedean gutxienez hiru urteko esperientzia izan behar du. Pertsona hori ikastetxeekin komunikatzeaz arduratuko da.	La parte adjudicataria deberá nombrar a una persona coordinadora/directora general, en la rama de conocimiento de Artes y Humanidades y/o Ciencias Sociales y/o Jurídicas y con conocimientos de euskera suficientes a nivel hablado y escrito (C1) y con experiencia mínima de tres años en el objeto del contrato, que se ocupará de la comunicación con los correspondientes centros escolares.
Sorta hau garatzeko, gehienez 30 koordinazio-ordu egingo dira, hartzaile taldeetan xehetuko direnak.	Para el desarrollo de este lote se realizarán un máximo de 30 horas de coordinación desglosadas en los diferentes grupos destinatarios.
Halaber, urtero gutxienez bi bilera egitea (bat ikastaroaren hasieran eta bestea bukaeran), Urretxuko eta Zumarragako arduradun teknikoekin koordinatzeko. Haiek arduratuko dira erakunde esleipenduna zuzentzeaz eta ikuskatzeaz.	Así como realizar anualmente al menos dos reuniones (uno al inicio del curso y otra a la finalización del mismo) de coordinación con el/la responsable técnico Urretxu y Zumarraga que serán los responsables de dirigir y supervisar la entidad adjudicataria.
Esleipendunak jardueren ardura hartuko duten langileen zerrenda eta curriculuma aurkeztu beharko ditu, baita sexu-delituen ziurtagiri negatiboa ere.	La parte adjudicataria deberá entregar el listado del personal que se responsabilizara de las actividades y su curriculum asi como la certificación negativa de delitos de naturaleza sexual.
Talde teknikoaren eginkizunak	**Funciones del equipo técnico**
Hezkidetza programa integralaren diseinua, sustapena, gauzatzea, koordinazioa, jarraipen sistematikoa eta eraginaren ebaluazioa, hezkuntza erakundeekin eta	Diseño, impulso, ejecución, coordinación, seguimiento sistemático y evaluación del impacto del programa integral de coeducación,

Urretxuko eta Zumarragako Udalarekin koordinatuta.	en coordinación con las entidades educativas y el ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga.
Programak ondo funtzionatzeko behar diren baliabide pertsonalak, teknikoak, azpiegiturakoak eta koordinaziokoak ematea.	Aportar los recursos personales, técnicos, de infraestructura y coordinación necesarios para el buen funcionamiento del programa
Hezkuntza-taldea koordinatzea eta gainbegiratzea.	Coordinación y supervisión del equipo educativo.
Programa garatzerakoan klausula administratibo eta teknikoen pleguetan jasotako baldintzak betetzea.	Desarrollar el programa cumpliendo las condiciones recogidas en los pliegos de cláusulas administrativas y técnicas.
Egin beharreko jardueren egutegia ikastetxeekin adostea, eta Urretxuko eta Zumarragako Udalei jakinaraztea oniritzia eman diezaioten eta edozein programa aldaketa edo gorabeheraren berri eman dezaten.	Acordar con los centros escolares la calendarización de las actividades a realizar, e informar al ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga para su visto bueno y sobre cualquier cambio de programa o incidencia.
Programaren urteko ebaluazio partzialaren txostena egitea.	Realizar un informe de evaluación parcial y anual del programa.
Programaren koordinaziorako eta jarraipenerako aldizkako bilerak egingo dira programaren arduradun diren Urretxuko eta Zumarragako udaletako teknikariekin.	Se realizarán reuniones periódicas de coordinación y seguimiento del programa con las personas técnicos responsables del ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga, responsable del programa.
2. LOTEA: URRETXU-ZUMARRAGAKO ESKOLETAN HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALARI BURUZKO TAILERRAK EGITEKO ZERBITZUA	**LOTE 2: SERVICIO PARA LA REALIZACIÓN DE TALLERES SOBRE EDUCACIÓN AFECTIVO-SEXUAL EN LOS CENTROS ESCOLARES DE URRETXU-ZUMARRAGA**
Badaude hainbat motibo hezkidetza eta bortizkeriaren prebentzioa egitasmo berean batzeko. Pertsona batzuk bortizkeria eragitera bultzatzen, eta besteak bortizkeria jasateko prestatzen dituen sistemak oraindik martxan dirau gurean. Neska-mutilek sozializazio prozesu ezberdina jasotzen dute, sexu/genero sistemaren irizpideak iraunkortuz. Horren ondorioz, pertsona ezin da garatu bere osotasunean. Aurrez ezarrita dauden rol eta igurikapenek gazteen gaitasun	Hay varios motivos para unir coeducación y prevención de la violencia en un mismo proyecto. El sistema que predispone a unas personas a provocar la violencia, y a otras a sufrirla, sigue funcionando. Los niños y niñas reciben un proceso de socialización diferente, manteniendo los criterios del sistema sexo/género. Esto hace que la

ororen garapena baldintzatu eta mugatzen dute. Hau da, jendartearen korronte nagusian lekua izango badute, gazteek izan badirena izateari utzi, eta haiengandik espero dena izaten ikasten dute.	persona no pueda desarrollarse en su totalidad. Los roles y expectativas preestablecidos condicionan y limitan el desarrollo de todas las capacidades de la juventud. Es decir, si van a tener un lugar en la corriente central de la sociedad, los jóvenes dejan de ser lo que han sido y aprenden a ser lo que se espera de ellos.
Ondorioz, bortizkeria arazo oso hedatua da gurean. Oso hedatua, eta egiturazkoa. Jendea sexuka banatzen duen sistema honek berezkoa du bortizkeria; beraz, arazoa ez da amaituko, besteak beste, sexismoaren transmisioa eteten ez dugun artean. Egiturazko bortizkeria ez da amaituko, pertsona eta harreman askeak oinarri dituen jendartea osatu arte.	En consecuencia, la violencia es un problema muy extendido entre nosotros. Muy extendida, y estructural. Este sistema que divide a la gente por sexos es inherente a la violencia, por lo que el problema no se acabará mientras no interrumpamos, entre otras cosas, la transmisión del sexismo. La violencia estructural no cesará hasta que se forme una sociedad basada en personas y relaciones libres.
Harreman onak martxan jartzean, norbere burua gustuko duten neska-mutilak ditugu amets. Andre eta gizon bilakatuko diren gazteak (haiek nahi duten moduan).	Al poner en marcha buenas relaciones soñamos con chavales que se gustan a uno mismo. Jóvenes que se convierten en mujeres y hombres (como ellos quieren).
Beste nor-nahi ere gustuko izango dutenak, eta ez talde edo itxura jakin batekoak soilik. Norbere buruaz fio dena errazago fio da besteez ere, elkarlanerako joera du berez. Honelakoa da lankidetza egitasmo sendoak garatzeko beharko dugun jendea. Aurrez aurre ditugun arazoak ez baitira konponduko, lagunarte ondo antolatuen ekimen iraunkorren bidez ez bada.	Los que gusten a otros y no sólo a un grupo o aspecto determinado. El que confía en sí mismo se fía más fácilmente de los demás, tiende naturalmente a la colaboración. Así es la gente que necesitaremos para desarrollar proyectos de cooperación sólidos. Porque los problemas a los que nos enfrentamos no se solucionarán sino a través de iniciativas permanentes de amistades bien organizadas.
Ikastetxeetan estereotipo murriztaileak identifikatu eta neutralizatzeko programa bat da. Buru-estimua, jakin mina eta autonomia indarberritzeko. Aukera aniztasun itzelaz ohartzeko, bai norbere desiretan, bai besteenganako harremanetan. Jolasteko, gozatzeko; eta elkarrenganako errespetuzko giroa sustatuz, besteen gozamena onartu eta	Este programa es para identificar y neutralizar estereotipos restrictivos. Estimular la estima mental, la curiosidad y la autonomía. Para darse cuenta de la enorme diversidad de posibilidades, tanto en los propios deseos como en las relaciones con los demás. Para jugar. Para disfrutar; y fomentando un clima de respeto mutuo para aceptar y alentar el

adoretzeko. Elkarren zaintza eta elkar laguntza harremanen oinarrian txertatzeko.	disfrute de los demás. Integrar el cuidado mutuo y la ayuda mutua en la base de las relaciones.
Funtsean, norbera zein besteak ondo hartzen ikastea da jendartean bortizkeria ekiditeko oinarria. Gainera neska-mutilak elkarrekin parekidetasunean lanean aritzeko prestatzen baditugu, hauek gai izango dira orain konponezinak iruditzen zaizkigun erronkei ekiteko. Izan ere, orain artean gailendu den mundu-ikuskera norbanakoarena izan da; eta bakarka, besteengandik banantzen gaituzten gezurrak sinistuta, ezin da gehiagora iritsi. Munduak pairatzen dituen arazo mingarrienak kolektiboki soilik konpon baitaitezke, lankidetzan.	En el fondo, aprender a tomarse bien a uno mismo y a los demás es la base para evitar la violencia en la sociedad. Pero si además preparamos a los chavales para trabajar juntos en paridad, éstos serán capaces de abordar retos que ahora nos parecen irresolubles. En efecto, la concepción del mundo que ha prevalecido hasta ahora ha sido la del individuo; y en solitario, creyendo en las mentiras que nos separan de los demás, no se puede llegar a más. Porque los problemas más dolorosos que sufre el mundo sólo pueden resolverse colectivamente, en cooperación.
LANEN IRISMENA	**ALCANCE DE LOS TRABAJOS**
Programa hau ikastetxetik kanpoko eragileek gauzatzen dute hezkuntzaren esparruan, eskola-inguruneko eragile naturalen hezkuntza-lana osatzeko: zuzendaritza, irakasleak eta orientazio-taldea.	Este programa está orientado a su implementación en el ámbito educativo por agentes externos al centro escolar para complementar la labor educativa de las y los agentes naturales del medio escolar: dirección, profesorado y equipo de orientación.
Hezkuntza afektibo-sexualari buruzko programa honen helburua da ikasleen, irakasleen eta familien osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea, sexualitatea gizakiari datxekion ezaugarri bat baita, gaitasun bat, potentzial bat eta, beraz, landu beharreko aukeretako bat.	La finalidad de este programa de Educación Afectivo Sexual consiste en mejorar la salud y calidad de vida del alumnado, profesorado y familias, ya que la sexualidad es una cualidad inherente al ser humano, una capacidad, un potencial y por tanto una de las alternativas a cultivar.
Helburua da ikasleak trebatuz joatea pertsonen arteko harreman osasuntsuagoak eta berdintasunean oinarritutakoak lortzen. Ikuspegi sanitariotik harago, garatzen diren esku-hartzeak integratzaileak izango dira, autoestimuari, errespetuari, erabaki autonomoak hartzeari, sexualitateari, sexu-estereotipoei, sexu-identitateari, sexu-aniztasunari eta desiraren pluraltasunari buruzko alderdiak landuz, bere gorputzaz eta honek eskaintzen dituen aukerez jabetzen lagunduko baitu. Programa saiatuko da	Se pretende que el alumnado vaya formándose en conseguir relaciones interpersonales más sanas y desde la igualdad. Va más allá del enfoque desde el punto de vista sanitario, las intervenciones que se desarrollen serán integradoras, trabajando aspectos sobre la autoestima, respeto, toma de decisiones autónomas, sexualidad, estereotipos sexuados, identidad sexual, diversidad sexual y pluralidad del

zalantzak argitzen eta ezaugarri, behar eta arazoetara egokituko diren edukiak indartzen, ahalik eta modu eraginkorrenean konpontzeko.	deseo que contribuirá a ser conscientes de su cuerpo y de las posibilidades que este ofrece. El programa tratará de aclarar dudas y reforzar contenidos que se adecuarán a las características, necesidades y problemáticas que existan, para resolver de la forma más eficaz posible.
Helburu espezifikoak - Norbere buruaren zainketa eta autoestimua. harreman solidarioak eta eraikitzaileak. - Berdintasunezko harremanak. - Sexuen arteko erantzukidetasuna eta bateragarritasuna. - Hezkuntza afektibo-sexuala eta sexu aniztasuna. - Harreman onak eta genero indarkeriaren prebentzioa.	**Objetivos específicos** -Cuidado de uno mismo y autoestima. relaciones solidarias y atractivas -Relaciones igualitarias. -Corresponsabilidad y conciliación entre sexos -Educación afectivo-sexual y diversidad sexual -Buenas relaciones y prevención de la violencia de género.
Baliabideak eta eman beharreko zerbitzua	**Recursos y servicio a prestar**
Programa, nagusiki, udalerrietako ikastetxeetako instalazioetan garatuko da.	El programa se desarrollará principalmente en las instalaciones de los centros escolares del municipio.
Beharrezkoa denean Urretxuko eta Zumarragako Udalak beste gune batzuk eta beste udal zerbitzu batzuekiko koordinazioa erraztuko dute.	Y cuando sea necesario el Ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga facilitará otros espacios y la coordinación con otros servicios municipales.
Udal-programen arteko sinergiak sustatuko dira, dagozkien udal-arloekin eta langile teknikoekin koordinatuta.	Se impulsarán sinergias entre programas municipales, en coordinación con sus respectivas áreas municipales y personal técnico.
Sorta hau garatzeko, gutxienez 220 ordu egingo dira, hartzaile taldeetan xehetuko direnak.	Para el desarrollo de este lote se realizarán un mínimo de 220 horas desglosadas en los diferentes grupos destinatarios.
Programak, ikasturte bakoitzean gutxienez 13 jardueraren bidez, ikasgelan tailerrak eta esku-hartzeak diseinatu, garatu eta landu beharko ditu.	El programa deberá abordar, a través de un mínimo de 13 actividades por curso escolar, el diseño, desarrollo y elaboración de talleres e intervenciones en el aula.

- Lehen Hezkuntzan, afektibitateari eta sexualitateari buruzko lauzpabost tailer, lau eta sei ordu bitartekoak. - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, afektibitateari eta sexualitateari buruzko bost tailer, lauzpabost ordukoak. - Tratu onei eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko sei orduko hiru tailer Batxilergoan.	- Cinco talleres de entre cuatro-seis horas de educación afectivo sexual en Educación Primaria. - Cinco talleres de entre cuatro-seis horas de educación afectivo sexual en Educación Secundaria. - Tres talleres de seis horas sobre buenos tratos y prevención violencia de género en Bachiller.
Talde teknikoa. Eginkizunak	**Equipo técnico. Funciones**
Programa garatzeko ardura duten langileek honako hauek izan beharko dituzte: unibertsitateko titulu ofiziala (psikologiako, gizarte esku-hartzeko eta/edo sexualitateari eta berdintasunari buruzko formakuntzeko lizentziatura edo baliokidea), C1 euskara-mailaren ziurtagiria, antzeko ekintzetan froga daitekeen esperientzia eta sexu-delituen ziurtagiri negatiboa.	El personal encargado del desarrollo del programa deberá poseer: el título oficial universitario (licenciatura en psicología, intervención social, y/o formación de sexualidad e igualdad o equivalente), certificado de un nivel de euskera C1, experiencia demostrable en acciones similares y el certificado negativo de delitos sexuales.
Esleipendunak koordinatzaile/zuzendari nagusi bat izendatu behar du, Arteak eta Giza Zientziak eta/edo Zientzia Sozialak eta/edo Juridikoak jakintza-arloan aritzeko. Euskaraz ondo hitz egiten eta idazten jakin behar du (C1), eta kontratuaren xedean gutxienez hiru urteko esperientzia izan behar du. Pertsona hori ikastetxeekin komunikatzeaz arduratuko da.	La parte adjudicataria deberá nombrar a una persona coordinadora/directora general, en la rama de conocimiento de Artes y Humanidades y/o Ciencias Sociales y/o Jurídicas y con conocimientos de euskera suficientes a nivel hablado y escrito (C1) y con experiencia mínima de tres años en el objeto del contrato, que se ocupará de la comunicación con los correspondientes centros escolares.
Sorta hau garatzeko, gehienez 30 koordinazio-ordu egingo dira, hartzaile taldeetan xehetuko direnak.	Para el desarrollo de este lote se realizarán un máximo de 30 horas de coordinación desglosadas en los diferentes grupos destinatarios.
Halaber, urtean bi bilera egitea (bat ikasturtearen hasieran eta bestea amaitutakoan) Urretxuko eta Zumarragako arduradun teknikoarekin koordinatzeko. Haiek arduratuko dira erakunde esleipenduna zuzentzeaz eta ikuskatzeaz.	Así como realizar anualmente al menos dos reunines (uno al inicio del curso y otra a la finalización del mismo) de coordinación con el/la responsable técnico Urretxu y Zumarraga que serán los responsables de dirigir y supervisar la entidad adjudicataria.
Esleipendunak jardueren ardura hartuko duten langileen zerrenda eta curriculuma	La parte adjudicataria deberá entregar el listado del personal que se

aurkeztu beharko ditu, baita sexu-delituen ziurtagiri negatiboa ere.	responsabilizara de las actividades y su curriculum asi como la certificación negativa de delitos de naturaleza sexual.
LOTE BIETARAKO XEDAPEN KOMUNAK	**DISPOSICIONES COMUNES PARA AMBOS LOTES**
Laugarrena. LIZITAZIORAKO AURKEZTU BEHARREKO PROIEKTUA	**Cuarta. PROYECTO A PRESENTAR PARA LA LICITACIÓN**
Lizitaziorako aurkezten den proiektuak puntu hauek izango ditu:	El proyecto que se presente para la licitación integrará los siguientes puntos:
-Hezkidetza-proiektuaren kontzeptu-esparrua. Urretxuko eta Zumarragako errealitatera egokitzea.	-Marco conceptual del proyecto coeducativo. Adecuación a la realidad de Urretxu y Zumarraga
-Esku-hartzearen xede den talde bakoitzarekin eta ikastaro bakoitzean garatu beharreko programazioa, helburuak eta edukiak. Aurreikusitako ordu kopurua.	-Programación, objetivos y contenidos a desarrollar con cada grupo destinatario de la intervención y en cada curso. Número de horas previstas.
-Zeharkako ildoen integrazioa (berdintasun- eta intersekzionalitate-printzipioa). Eta proiektuaren izaera prozesuala.	-Integración de las líneas trasversales (principio de igualdad e interseccionalidad). Y carácter procesual del proyecto.
-Adinaren arabera egokitutako metodologia eta material didaktikoak.	-Metodología y materiales didácticos adecuados a cada curso según edad.
-Jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodologia eta tresnak. Prozesuaren sistematizazioa. Ebaluazio-adierazleak. Aurkeztu beharreko txostenen egitura.	-Metodología e instrumentos de seguimiento y evaluación. Sistematización del proceso. Indicadores de evaluación. Estructura de los informes a presentar.
-Ikastetxeekin eta programan parte hartzen duten beste erakunde batzuekin koordinatzea.	-Coordinación con los centros educativos y con otras entidades que participen en el programa.
-Urretxuko eta Zumarragako udaleko teknikari arduradunekin koordinatzea.	-Coordinación con los técnicos responsables del ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga.
- Programa aurrera eramateko behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak.	-Descripción de los medios personales y técnicos para el desarrollo del programa.

-Lan-taldearen ezaugarriak eta lan-ibilbidea, kontratuaren xedeari dagokionez. -Organigrama; bertan, profesional bakoitzak beteko dituen funtzioak eta parte hartuko duen ikastaroak zehaztuko dira. -Proposamen berritzaileak eta komunitateari irekitzekoak.	-Características del equipo de trabajo y trayectoria profesional en relación al objeto del contrato. -Organigrama en el que se detalle las funciones que cada profesional vaya a desempeñar y los cursos en los que vaya a intervenir. -Propuestas innovadoras y de apertura a la comunidad.
Bosgarrena. FUNTZIONAMENDUA ETA UDALAREKIKO KOORDINAZIOA Urretxuko eta Zumarragako Udaleko teknikari arduradunen laguntzarekin egingo da zerbitzua. Urtean gutxienez bi bilera egitea aurreikusten da: Ikasturte hasieran egingo den lehen bileran, ikastaroaren plangintza adostuko da, eta talde hartzaile bakoitzean egingo diren ekintzak, saioak eta esku-hartzeak adieraziko dira. Ondoren, enpresa esleipendunak data eta ordutegi zehatzak adostuko ditu ikastetxeekin. Aurrera egiteko beharrezkoa izango da udal teknikariek egutegiaren oniritzia ematea. Udalek erabaki dezakete talde hartzaile batentzat aurreikusitako ordu kopurua aldatzea, ezustekoak direla eta. Kasu horretan, lote horri dagokion ordu-kopuru osoari eutsiko zaio. Azken bilera ikasturte amaieran egingo da, emandako zerbitzuen balorazio orokorra egiteko. Azken saioa egin aurretik, entitate esleipendunak egindako lanen memoria aurkeztuko die udalei.	**Quinta. FUNCIONAMIENTO Y COORDINACIÓN CON EL AYUNTAMIENTO** El seguimiento del servicio se realizará en colaboración entre las personas técnico responsable del ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga. Se prevé un mínimo de dos reuniones anuales: En la primera reunión que se celebrará a principios de curso donde se consensuará la planificación del curso, indicando las acciones, sesiones e intervenciones que se realizarán en cada grupo destinatario. Posteriormente la empresa adjudicataría acordará con los centros escolares fechas y horarios concretos. Para avanzar será necesario el visto bueno del calendario por parte de las personas técnicas municipales. Los ayuntamientos pueden decidir cambiar el número de horas previstas para un grupo destinitario por inprevistos. En tal caso, se mantendría el número total de horas que corresponde a ese lote. La última reunión se celebrará a finales de curso con el fin de realizar una valoración global de los servicios prestados. Con carácter previo a la sesión final, la entidad adjudicataria presentará al ayuntamiento una memoria de los trabajos realizados.

Seigarrena. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK	**Sexta. OBLIGACIONES DE LA PARTE ADJUDICATARIA**
5.2. URTEKO MEMORIA EGITEA	**5.2. REALIZACIÓN DE MEMORIA ANUAL**
Zerbitzua ematen den ikasturte bakoitzeko uztailaren 15a baino lehen, entitate esleipendunak egindako ekintzei buruzko azken memoria aurkeztu beharko du, euskaraz eta gaztelaniaz. Memoria horretan, gutxienez, puntu hauek jaso beharko dira:	Antes del 15 de julio de cada curso académico en el que se preste el servicio, la entidad adjudicataria deberá presentar una memoria final en euskera y castellano de las actividades realizadas. Dicha memoria deberá contener, como mínimo, los siguientes extremos:
A.- Tailerren eta programen datuak jasoko dituen **deskribapen-zatia**: -Programaren garapenaren deskribapena eta kronograma - Parte hartzen duten neska-mutilen zerrenda, sexuaren, adinaren eta taldearen arabera banatuta. - Aplikatutako metodologia -Helburuen betetze-maila, balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.	A.- Parte **descriptiva** que recoja los datos de los talleres y programas: - Descripción del desarrollo del programa y cronograma - La relación de las niñas/os participantes desagregada por sexo, edad y grupo, - Metodología aplicada - Grado de cumplimiento de los objetivos, valoración cuantitativa y cualitativa.
B.- **Ebaluazio-zatia**: -Prozesuaren ebaluazioa -Koordinazioa eta bilerak egokitzea -Prestakuntza, baliabideak eta jarduerak egokitzea. - Informazioa biltzeko metodoak eta ebaluazio-adierazleak	B.- **Parte evaluativa:** - Evaluación del proceso - Adecuación de la coordinación y de las reuniones - Adecuación de la preparación, los recursos y las actividades - Métodos de recogida de la información e indicadores de evaluación
C.- **Proposamenen zatia**: Esleipendunak agiri honetan xedatutakoari aldaketaren bat egitea aurreikusiko balu gerta litezkeen gorabehera edo atzerapenen ondorioz, horren berri eman beharko du, bi udaletako arduradunek beren adostasuna eman dezaten.	C.- **Parte de propuestas:** En caso de que la parte adjudicataria previera algún cambio sobre lo dispuesto en este Pliego debido a eventuales contratiempos o retrasos, deberá comunicarlo a fin de que los o

	las responsables de los dos ayuntamientos den su conformidad.
Zazpigarrena. URRETXUKO ETA ZUMARRAGAKO UDALEN BETEBEHARRAK 1. Lanerako jarraibideak eta irizpideak jakinaraziko dituzte, proiektuak garatzerakoan kontuan har daitezen. 2. Pertsona bat izendatuko dute, zerbitzua behar bezala ematen dela eta baldintza-agirien edukia osorik betetzen dela egiaztatzeko; pertsona horren izena erakunde adjudikaziodunari jakinaraziko zaio. 3. Proiektuak behar bezala garatzeko bitarteko teknikoak jarriko dituzte. 4. Lan metodologian zein eguneroko kudeaketan eragina izan dezaketen aldaketa edo alderdien berri emango dute. 5. Udalerriko gizarte erakundeekin harremanak erraztuko dituzte.	**Septima. OBLIGACIONES DE LOS AYUNTAMIENTOS DE ZUMARRAGA Y URRETXU** 1. Comunicarán las directrices y criterios de trabajo para que se tengan en cuenta a la hora de desarrollar los proyectos. 2. Designarán a una persona, cuyo nombre se comunicará a la entidad adjudicataria, como responsable de comprobar la correcta prestación del servicio y el cumplimiento íntegro del contenido de estos pliegos. 3. Aportarán los medios técnicos para el correcto desarrollo de los proyectos. **4.** Informarán sobre cambios o aspectos que puedan repercutir tanto en la metodología de trabajo como en la gestión diaria. **5.** Facilitarán las relaciones con las diferentes entidades sociales del municipio.

EGINBIDEA: Jasota gera dadila plegu hau onartu dela, Urretxuko Udalak (Alkatetzaren 2025eko maiatzaren 16ko Dekretu bidez) eta Zumarragako Udalak (Tokiko Gobernu Batzordearen 2025eko maiatzaren 23ko erabaki bidez).

Zumarragako udaleko idazkaria,

Elektronikoki sinatutako agiria
ZUMARRAGAKO UDALA
Documento firmado electrónicamente

Firmado por: LUCIA OCARIZ BADIOLA
Fecha : 23/05/2025- 14:28:28